



ARAUDIA

1. Aurkezpena

Ganzabal Mendi Taldeak antolatzen ditu **Lemoatx Trail 2026** ekitaldiaren barruko mendi lasterketak eta martxak. Ekitaldi hori **2026ko azaroaren 15ean** egiten da Lemoan (Bizkaia), eta Lehendakari Agirre kaleko 23an (Eguskitza Meabe Ikastetxe Publikoa) izaten du irteera zein helmuga.

Lemoa, Amorebieta-Etxano, Dima eta Igorre udalerrietako lurretatik pasatzen dira probak, Belatxikieta (661m), Lemoatxa (363m) eta Aspunta (365m) gailurretatik igarota.

Edertasun natural handiko lekuetatik igarotzen da (Urkiolako Parke Naturala, Legarmendi mendilerroa), baita balio historiko handikoetatik (azken gerra zibilean egindako lubakien eremua, Aranzadik eta Lemoako Udalak berreskuratuak).

Lemoatx Trail mendiko lasterketak Bizkaiko Mendi Federazioarekin elkarlanean egingo dira Bizkaiko Mendi Txapelketan. Txapelketa horrek 2026an lasterketa bakarra du, gure proba. Bizkaiko txapelketak araudi propioa izango du.

2. Modalitateak eta kategoriak

Ekitaldiak lau proba ditu.

LEHIAKETA-MODALITATEA:

Lasterketa luzea (25 km - 2600 metroko desnibel metatua / + 1300 positiboa – 1300 negatiboa)

Lasterketa laburra (17 km - 1820 metroko desnibel metatua / +910 positiboa -910 negatiboa)

- Bai lasterketa luzean (25K), bai laburrean (17K), federatutako edo federatu gabeko **18 urtetik gorako** pertsonak parte har dezakete.
- Lasterketa laburrean (17K), **15 eta 17 urte** bitarteko pertsona federatuak edo federatu gabekoak parte har dezakete, biak barne (**2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra** bitartean jaioetakoak). Nahitaezkoa da adingabearen inskripzioan frogan parte hartzeko baimena ematen duen eta jakinarazten zaizkion legezko baldintzak onartzen dituen helduaren/legezko tutorearen datuak ematea.

- Bi lasterketetako bakoitzean, sailkapen bakarra egongo da kategoria **absolutuan**, distantziaren arabera (luzea/laburra). Sailkapen bakoitzaren barruan, **emakumezkoen eta gizonezkoen** sailkapenak bereiziko dira.

MODALITATE EZ LEHIAKORRA:

Mendi martxa luzea (25 km - 2600 metroko desnibel metatua / +1300 positiboa -1300 negatiboa)

- Parte har dezakete **18 urtetik gorako** pertsonak, federatu zein federatu bakoak.
- Federatutako edo federatu gabeko **15 eta 17 urte** bitarteko pertsonak har dezakete parte, biak barne (**2008ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra** bitartean jaiotakoak). Nahitaezkoa da adingabearen inskripzioan frogan parte hartzea baimentzen duen eta jakinarazten diren legezko baldintzak onartzen dituen heldu/legezko tutorearen datuak ematea.
- Federatutako edo federatu gabeko **15 urtetik beherako** pertsonak har dezakete parte (**2012ko urtarrilaren 1etik** aurrera jaiotakoek). Nahitaezkoa da beti heldu batekin joatea, pertsona heldu horrek bere datuak emango ditu adingabearen inskripzioan, eta nahitaezkoa da, halaber, parte-hartzaile gisa inskribatzea legezko baldintzak onartzearekin batera.

Lemoatx familian (8,5 km - 820 metroko desnibel metatua /+410 positiboa -410 negatiboa)

- Adingabeei eta familiei zuzendutako mendi martxa, PR®-BI 56 «Lemoatxa 1937» ibilbidetik igarotzen dena. Derrigorrezkoa da **15 urtetik beherako** guztiak, (**2012ko urtarrilaren 1etik** aurrera jaiotakoek), beti heldu batekin joatea. Heldu horrek bere datuak emango ditu adingabearen inskripzioan, eta nahitaezkoa da, halaber, parte-hartzaile gisa inskribatzea, legezko baldintzak onartzearekin batera.

3. Lehiaketa modalitateko sariak

Emakumezkoen kategoria absolutua (25K)

1. - txapela eta garaikurra
2. - garaikurra
3. - garaikurra

Gizonezkoen kategoria absolutua (25K)

1. - txapela eta garaikurra
2. - garaikurra
3. - garaikurra

Emakumezkoen kategoria absolutua (17K)

1. - txapela eta garaikurra
2. - garaikurra
3. - garaikurra

Gizonezkoen kategoria absolutua (17K)

1. - txapela eta garaikurra
2. - garaikurra
3. - garaikurra

Emakumezkoen kategoria absolutua (25K) - Ganzabal Mendi Taldeko bazkidea
1 - garaikurra

Gizonezkoen kategoria absolutua (25K) - Ganzabal Mendi Taldeko bazkidea
1 - garaikurra

Emakumezkoen kategoria absolutua (17K) - Ganzabal Mendi Taldeko bazkidea
1 - garaikurra

Gizonezkoen kategoria absolutua (17K) - Ganzabal Mendi Taldeko bazkidea
1 - garaikurra

4. Izen-ematea eta plaza-kopurua

Izen-emate guztiak buscametas webgunearen bidez egin beharko dira:
<https://www.buscametas.com/modulos/ticket/evento.php?codigo=1287> **2026ko**
uztailaren 24ko 00:00etatik, 2026ko azaroaren 8ko 23:59ra arte.

Bi lasterketek (25K – 17K) eta martxa luzeak (25K) 200 partaide izango dituzte gehienez bakoitzak; Lemoatx familian (8K) martxak 250 parte-hartzaile izango ditu gehienez. Epea amaitu aurretik gehienezko kupo horiek betetzen badira, aldez aurretik itxiko dira inskripzioak. Ordainketa egin ondoren bakarrik baliozkotuko da inskripzioa.

Lau probetako edozeinetan izena emateak eskubidea ematen du proban parte hartzeko, RC aseguruia izateko, korrikalari-poltsa, kamiseta eta opariren bat lortzeko aukera izateko.

Ez da inola ere itzuliko inskripzioagatik ordaindutakoa, baina korrikalari-poltsa izateko eskubidea izango du.

Kamisetaren neurria soilik izango dute bermatuta 2026ko urriaren 20ko 23:59a arte izena eman dutenek.

Behin izena emanda, ezin da proba aldatu. Dortsala pertsonala eta besterenezina da.

5. Prezioak

MODALITATEA	Federatuak	Federatu bakoak
Lasterketa luzea (25K)	23€	28€
Lasterketa laburra (17K)	17€	22€
Mendi martxa (25K)	14€	18€
Lemoatx familian (8,5K)	10€	14€

6. Irteera ordutegiak

Mendi martxa (25K) - **08:00etan**

Lasterketa luzea (25 km) - **09:15ean**

Lasterketa laburra (17K) - **10:00etan**

Mendi martxa familian (8K) - **10:45ean**

7. Hornidura guneak

6,3. km - (Aramotz): likidua eta solidoa.

12,0. km - (Aramotz): likidua eta solidoa.


16,7. km - (Tallerreta): likidua eta solidoa.

20,4. km - (Lemoatxa): likidua eta solidoa.

25,0 km - (Eskolak): likidua eta solidoa.

- Nahitaezkoa da parte-hartzaile bakoitzak bere ontzia eramatea likidoz hornitzeko.
- Ez da edalontzirik izango horniduretan, eta debekatuta dago botilatik zuzenean ura edatea.
- Inskribatutako pertsonak bakarrik sartuko dira horniduretan, eta, beraz, dortsala agerian eraman behar dute.

Proben profila eta hornidura guneak.



8. Dortsalak ematea

Lemoatx Trail lau modalitateetan izena eman duten pertsonak **dortsala** eramango dute.

Probaren aurreko egunetan dortsalak antolatzaileek ezarritako leku eta ordutegietan emango dira.

Probaren egunean, antolatzaileek horretarako prestatutako lekuan jasoko dira, **proba bakoitza hasi baino 45 minutu lehenago**. Erakundeak adierazitako tokitik sartuz eta adierazitako jarraibideei jarraituz (lerroak, distantziak...)

Nahitaezkoa izango da parte-hartzaile bakoitzaren **NANa edo antzeko dokumentua** aurkeztea. Federatutako pertsonak federazioaren txartela aurkeztu beharko dute, NANarekin edo antzeko dokumentuarekin batera.

Proban izena eman duen pertsonak ezin badu dortsala jasotzera joan, **beste pertsona batek jaso dezake, bere izenean, baldin eta inskribatutakoak sinatutako baimena edo inskribatutako pertsonaren NANa, honen argazki edo kopia aurkezten bada**.

9. Lehiaketako epaimahaia

Organo aholku-emailea da, eta proba garatzearen ondorioz sor daitezkeen erreklamazioei erantzuteko ardura du. Lasterketaren barruan erreklamazio bat egiten den unean egingo da organo horren deialdia, 15:00ak arte.

10. Parte-hartzaileen portaera orokorra

Mendi lasterketako parte hartzaileak behartuta daude antolakuntzak emandako **dortsala** eramatera. Proba osoan (**kamisetan**) ageriko lekuan eta aurrealdean joan behar da, eta ezin izango da ez tolestu ez ebaki.

Parte-hartzaileak behartuta daude arriskuan edo istripua izan duen beste pertsona bati **sorospena ematera**, eta gertuen dagoen kontrolari jakinarazi beharko diote berehala. Laguntzarik ez eskaintzeak probatik berehala kanporatzea ekarriko du.

Parte-hartzaile bakoitzaren betebeharra da **hondakinak** erakundeak adierazitako lekuetara eramatea.

Parte-hartzaileek une oro bete behar dituzte antolakuntzako kideen jarraibideak, ibilbide osoan zehar, betiere lehiaketa-araudia eta antolakuntzarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik, probaren aurretik edo proba egin bitartean, antolakuntzak har ditzakeen aldaketak errespetatuz.

Parte-hartzailea erretiratzen bada, antolakuntzaren kontrol batean egin beharko du, hari abisua emanez eta **dortsala entregatuz**; parte-hartzaileak bere gain hartuko du uzten duen unetik duen erantzukizun guztia.

25K-ko mendi martxetan parte hartzen duten pertsonak **ezin dezakete txakur batek lagunduta egin**, martxa hori Urkiolako Parke naturalaren baitan dagoelako eta debeku hori araudiak jaso behar du.

8K-ko familian mendi martxan parte hartuko duten pertsonak **txakur batekin lagunduta egin dezakete, baina txakurrak lotuta joan behar dute.**

Lasterketetan ezin da txakurrekin korrika egin.

11. Seinaleztapena eta igarotze-kontrolak

Ibilbidea behar bezala seinaleztatuta dago, seinaleztapen-banderen, zinten eta antolatzaileek jarritako gainerako elementuen bidez. Parte-hartzaileek markatutako ibilbidea jarraitu beharko dute, eta boluntarioen jarraibideei kasu egin beharko diete une oro; ibilbidetik irteten den edo jarraibideak errespetatzen ez dituen oro lasterketatik bota daiteke, eta ekitaldiaren asegurua estalduratik kanpo gera daiteke.

Antolatzaileek **igarotze-kontrolak** jarriko dituzte ibilbideko punturen batean; puntu horretatik igaro ez dena lasterketako sailkapenetik kanpo egongo da.

Proba bakoitzean **mozketa-ordutegiak** ezarriko dira, justifikazio bako atzerapenak saihesteko bakarrik, zeintzuek proba normaltasunez egiteko edota antolakuntzaren lana oztopatu dezaketen.

- **16,0 km – Tallerreta, 12:30ean**
- **18,8 km – Lemoatxa, 13:30ean**

Ordutegi horiek ekitaldiaren sare sozialetan argitaratuko dira, eta parte-hartzaile bakoitzak antolakuntzari ematen dion posta elektronikoan emango da horien berri.

12. Proba etetea edo baliogabetzea

Egoerak hala eskatzen badu, antolatzaileek proba eten dezakete ibilbideko puntu batean: kasu horretan, **posizioak eta amaiera denborak eten-puntuan hartuko dira, edo, bestela, egindako azken kontrolean.** Helmugaraino kontrolik ez badago, **helmugako denborak** hartuko dira.

Antolatzaileek **ekitaldia bertan behera uzteko eskubidea** izango dute, baldin eta arrazoi nahikorik balego.

13. Mediku zerbitzua

Antolatzaileek **anbulantzia** bat dute helmugan, eta lur orotako ibilgailu bat **Aramotz** inguruan, parte-hartzaileei arreta emateko. Edozein parte-hartzailek ezbeharren bat badu, edozein boluntariori abisua eman diezaioke laguntza eskatzeko eta, aldi berean, dagozkion zerbitzuei abisua emateko.

Antolatzaileek probak egin aurretik mediku azterketa bat egitea gomendatzen diete parte-hartzaileei, kirol-jarduerak egitetik eratorritako arriskua baitago.

14. Kontsigna eta dutexak

Antolakuntzak **kontsigna zerbitzua** eskainiko die parte hartzaile guztiei, eta zerbitzu hori irteera/helmuga gunean eskainiko du.

Antolatzaileek dutxa zerbitzua eskainiko diete parte-hartzaile guztiei Lemoako udal kiroldegian, irteera/helmuga gunearen ondoan.

15. Segurtasuna

Antolatzaileek **bateria beteta duen mugikor** bat eramatea gomendatzen dute.

16. Lasterketa zuzendaritza

Ganzabal Mendi Taldeak, ekitaldiaren antolatzaile den aldetik, ekitaldiaren segurtasuna eta probaren burutze egokia zaintzeko behar diren argibide, aldaketa edo bestelako neurriak hartzeko ardura eta ahalmena izango du.

17. Irudi-eskubideak

Izena eman duten parte-hartzaile guztiek baimena ematen dute **antolatzaileek hartutako argazkiak eta bideoak** argitaratzeko. Ez da beharrezkoa paperik sinatzea baimena emateko. Puntu hori ez onartzeak proban parte hartzeko izena eman duen pertsona kanpoan uzten du.

Antolakuntza

